


2021-22 BHko ordutegia

Datorren ikasturtean DBH eta Batxilergoko ikasleen ordutegiak izango duen berezitasuna azalduz zirkularra duzue bertan.



Elhuyar Zientzia Azoka

Lur eta Ingurumen Zientziak ikasgaian Elhuyar Zientzia Azokarako lanak aurkeztu genituen, eta saria jaso genuen "Plastikoaren eragina: aste batean zenbat plastiko kantitate erabiltzen dugu?" proiektuarekin. Erlantz Gonzalez, Ekhi Goia, June Zapirain eta Nahia San Argimiro izan dira sarituak, eta aurreko larunbatean Bilbon egin zen Elhuyar Zientzia Azokan beren proiektua erakusteko aukera izan zuten. Azokan bertan, Jon Abril Elhuyarko Zuzendari Nagusiaren eskutik jaso zuten saria. Zorionak laukote!



Auzoko dendetara hamaiketako erostera HH2n

Aurreko astean, Kattagorri Taldekoak hamaiketako erostera joan ginen auzoko hainbat dendetara: okindegira, janari dendara... Haurrek emozioz bizi izan genuen esperientzia hori. Ondoren, gustura jan genuen hamaiketa hori Hartzatxo Taldeko lagunekin batera!"



Ipuin kontaketa berezia HH4n

Atzo guraso bat etorri zitzaigun ipuin berezi bat kontatzera. Hortxe ibili ginen tximuen abenturak bizitzen eta esperimintatzen... zenbat ezusteko! Zein polita den gurasoak ikastolan parte hartzen ikustea! Eskerrik asko, Enara!



LH3koak hondartzan

LH3koak hondartzara irteera egin genuen atzo. Primeran pasatu genuen, eguraldiaz eta konpainiaz gozatu!



Kontzientzia Sortzaileak erakusketara bisita

DBH4ko ikasleak Okendo Kultur Etxean ikusgai dagoen Kontzientzia Sortzaileak erakusketan egon ginen asteazkenean. Balio Etikoak arloan gatazkak lantzen ari gara, eta erakusketan 40 fotokazetarik mundu osoan zehar ateratako gerretako eta hondamendietako argazkiak ikusi genituen. Argazkiek kontzientziako sortzeko eta aldatu nahi dugun hori seinialatzeko duten ahalmenaz aritu ginen ondoren.



Garapen jasangarriari buruzko erakusketa

DBH 4ko biologiako ikasleok garapen jasangarriari buruzko posterak egin ditugu, eta erakusketa antolatu dugu pasilloetan. Ingurumena zaintzen ez badugu gerta daitezkeen ondorioak ere bildu ditugu posterretan, ikastolan ingurumenaren aldeko kontzientzia pizteko asmoz!



Batxilergo 2koen agurra

Atzo bukatu zen Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazio-froga, eta, horrekin batera, Batxilergo 2. mailako ikasleek Zurriola Ikastolan egin duten ibilbidea. Osasun-egoerak ahalbidetu zuen neurrian agurtu zuten ikastola, ateak beti zabalik izango dituztela jakitun. Bejondeizuela!



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Basoeskola. HH5A-B (Ainere-Miren) goizpasa, ekainak 23.
- **HH-LH:** Ekaineko antolaketa. Zirkularra.
- **LH:** Antzerkiko barne emanaldiak aste guztian zehar.
- **DBH:** Irteerak. DBH1, 2 eta 3: ekainak 18. DBH4: ekainak 14.
- **DBH2A:** Bela-ikastaroa. Saio praktikoa. Ekainak 14.
- **Zerbitzuak 2021/22:** [Informazioa eta galdetegiak](#).
- **Liburu salmenta 2021/22:** [Informazioa eta galdetegiak](#). LH1 eta LH2 (2021-22 ikasturtean).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Emanaldien egutegia (eguneratua). Emanaldietarako [izen-ematea](#).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Azken saioa ekainak 17. Lehenago atera behar izanez gero, irakaslea jakinarazi.
- **Haurtxokoa & Gazteleku:** Ekaineko [programazioa](#). [Ekiniza bereziak](#).

